



**EBAZPENA, 2011KO ABUZTUAREN 31KOA, LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. EBAZPEN HONEN BIDEZ HEZIKETA BEREZIKO IRAKASLE EZ DIREN LANGILEENTZAKO LANPOSTU ESLEIPEN-PROZESUA BEHIN-BEHINEKOZ EBAZTEN DA.**

Hezkuntza Bereziko langileen ez- irakasleen ordezkapenei buruzko araudian finkatutako irizpideen arabera 2011ko abuztuaren 30an Heziketa Bereziko irakasle ez diren langileentzako lanpostua esleipena egin zen.

Aurreko prozesuak bukatu ondoren, esleipenaren behin-behineko ebazpena argitara emateari eta interesatuek erreklamazioak aurkezteko epea zabaltzeari dagokio.

Hori dela eta, HAU EBATZI DUT:

***Lehenengoa.- Prozesuaren behin-behineko ebazpena***

Abuztuaren 30ean egindako Heziketa Bereziko irakasle ez diren langileentzako lanpostu esleipen-prozesuaren behin-behineko ebazpena onartu egiten da.

***Bigarrena.- Esleipenaren kontrako erreklamazioak***

Behin-behineko esleipen honen kontrako erreklamazioak langileriaren kudeatzeko zuzendariari zuzendutako idatziaren bitartez aurkeztu beharko dira argitaratutako egunetik 2011ko irailaren 2ra.

***Hirugarren .- Behin betiko ebazpena***

Prozeduraren behin betiko ebazpena, erreklamazioak aztertu ondoren argitaratuko da, 2011ko irailaren 8an, hain zuzen ere, web orrian eta Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 31n.

**Juan Manuel Aramendi Arteaga**  
LANGILERIAREN KUDEATZEKO ZUZENDARIA